
Prentsa-oharra

Hemendik aurrera, bi deialdi egingo dira: bata, gizarte- eta/edo kultura-ekintza bultzatzeko, eta, bestea, 2022ko martxoan, gizarte-berrikuntzarako proiektu edo aliantzetara zuzendua.

Gipuzkoan 2022ko gizarte- eta kultura-ekimenetarako beste laguntza-deialdi bat iragarri du Kutxa Fundazioak



Donostia, 2021eko azaroaren 4a. Kutxa Fundazioak bihar argitaratuko du Gipuzkoan irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek 2022an gauzatu nahi dituzten gizarte- eta kultura-ekimenetarako laguntzen deialdi irekia, aurten aldaketak eta berritasunak dituen.

Laguntza horien egoera aztertu ondoren, eta horien helburua Kutxa Fundazioaren Plan Estrategiko berriarekin bat etor dadin, deialdi honetarako planteamendua bi helburutan oinarrituko da: batetik, Kutxa Fundazioak egiten duen ahalegin ekonomikoaren eta kudeaketa-ahaleginaren eragin edo inpaktua handitzea; eta, bestetik, erakundeei laguntza espezifikoagoa ematea, beraien profilaren eta garatzen duten jardura-tipologiaren arabera.

Kutxa Fundazioak aurten egiten duen proposamenak bi helbururi erantzun nahi die era bereizgarrian: alde batetik, gizarte-ekimena bultzatzea, Gipuzkoako eraldaketa sozialerako gizarte- eta kultura-arloa eta gizarte- eta ingurumen-arloa barne; eta bestetik, berrikuntza soziala bultzatzea, proiektu eraldatzaileen eta erakusgarrien bidez,

Gipuzkoako gizarteak 2030eko agendari laguntzeko dituen erronka estrategikoei erantzuteko.

Beraz, aurten, proposamena bi deialdiren prestaketan zehazten da. Lehenengoa, orain aurkeztu dena, gizarte- eta/edo kultura-ekintza bultzatzeko; eta bigarren deialdia, 2022ko martxoan abian jarriko dena, aliantzan egiten diren gizarte-berrikuntzarako proiektuetara zuzendua.

Gizarte- eta kultura-ekintza bultzatzeko deialdia

Gizarte- eta kultura-ekintzari laguntzeko deialdiaren helburua da Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko erakundeek egiten duten gizarte- eta kultura-ekintzari ekonomia aldetik laguntzea. Horretarako, erakunde askotara iritsi nahi da, baldin eta erakunde horien proposamenek, zerbitzu edo ekimen gisa, Kutxa Fundazioaren lehentasun estrategikoei lotutako premiei/erronkei erantzuten badiete, eta esku-hartze zorrotz eta kalitatezkoak planteatzen badituzte, justifikagarria den aurrekontuarekin.

Kutxa Fundazioak, gehienez ere, aurkeztutako aurrekontuaren % 75 emango du. Aurrekoa gorabehera, Kutxa Fundazioak emandako zenbatekoa ezingo da 20.000€ baino gehiagokoa izan banakako ekimenen kasuan, ezta ere 50.000€ baino gehiagokoa lankidetzak-ekimenen kasuan.

Finantzaketa-esparruak, 2030 Garapen Jasangarrirako Agendari erantzunez, GJHei laguntzeko logikatik planteatu dira, zehazki:

- Pobrezia, gizarteratzea eta bizikidetzak (1. eta 10. GJH)
- Gizarte-ongizatea eta autonomia pertsonala sustatzea (3. GJH)
- Haurren eta gazteen babesa (10. GJH)
- Zahartze aktiboa eta bakardadearen prebentzioa (3. GJH)
- Genero-berdintasuna, feminismoa eta gizarte-ekitateak sustatzea (5. GJH)
- Jasangarritasunerako eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko hezkuntza (12, 13, 14 eta 15. GJH)
- Kultura sustatzea (11. GJH)
- Balioetan hezteak eta herritartasun kritikoa sustatzea (4. GJH)
- Euskara sustatzea bere ikuspegi inklusibotik (18*. GJH)

Gizarte-berrikuntzarako proiektu edo aliantzen deialdia

Gizarte-berrikuntzarako aliantza-proiektuen deialdia 2022ko martxoan jarriko da abian, eta 2030 Agendari lotutako erronka estrategikoei erantzun berritzaileak ematea du

helburu; horretarako, proiektu eraldatzaileak bultzatuko ditu, ezaupide eta esperientzia osagarriak dituzten erakundeen arteko lankidetzatik abiatuta, baldin eta gizarte-berrikuntza bultzatzeko gaitasuna badute eta garapen jasangarrirako helburuak eraginkortasunez ezartzeari begira erakuste-efektua sortzen badute.

Proiekturik onenak babestuko dira, Kutxa Fundazioak bere estrategiaren arabera urtero lehenetsiko dituen erronka zehatzei modu berritzailean eta diziplinartekotasunez erantzuten dietenak.

Proiektu-proposamenak handiagoak izatea eta zuzkidura ekonomiko handiagoa behar izatea aurreikusten da, baita urtebete baino gehiagoko inplementazio-epeak ere (egikaritzeko urtea gaindituko dutenak).

Datu praktikoak

Bihar, azaroak 5, eskaerak aurkezteko epea irekiko da, eta dokumentazioa elektronikoki bidaliko da horretarako Kutxa Fundazioaren webgunean (www.kutxa.eus) dagoen inprimaki edo formularioaren bidez, beranduenik ere 2021eko abenduaren 9ko 14:00ak baino lehen. Jasotako eskaerak ebaluatu ondoren, Kutxa Fundazioak konpromisoa hartzen du emango dituen laguntzak 2022ko martxoaren 4rako erabakitzeko.

Deialdi honen oinarriak kutxa.eus webgunean ikus daitezke.